

Value Proposition:

Gure balore proposamena, kafe basoari diseinu modernoa eta aldi berean klasiko bat ematea da, ingurumena zainduz. Gure produktuak, bi arazo konponduko ditu:

Lehenik eta behin, urtean 13,6 milioi tonelada plastiko eta 500.000.000.000 baso kontsumitzen eta botatzen dira zakarrontzira mundu osoan. Plastiko horretatik ehuneko handi batek itsasoan bukatzen du, Europako parlamentuaren arabera urtean, 4,8 - 12,7 miloi tonelada inguru eta horietatik zortzigarren produkturik ugariena, plastikozko basoak dira. Hau ikusita, gailentzeko basoak egitea erabaki genuen, kafea hartzeko, gosaltzeko, etab... batez ere Euskal Herrian kutsadura hau asko murriztuko zuen.

Bigarrenik, edari batzuk hartzeko beste modu interesgarri bat izango litzake, adibidez, kafe bat hartzerakoan gosea baldin baduzu, baso honekin kafea edateko eta basoa jateko aukera edukiko duzu. Modu original honetatik janari asko jateko beste modu erraz bat sortzen da. Baso honek, edari beroarekin gailera ez da biguinduko, tenperatura altuko edariekin 40 minutura arte iraun dezake disolbatzen hasi baino lehen. Edari hotzak ere minutu mordo bat aguantatu ditzake.

Bi arazo horiek konpontzeaz gain, gure basoaren formatoari dagokionez, baso honek hainbat tamaina edukiko ditu, txikia, ertaina eta handia. Honekin, jendeak aukera gehiago ditu basoa erosterako orduan. Horrez gain, Basoan gure markaren logoa aterako da, basoaren azpian eta basoaren kanpoko aldeko erdialdean, publizitatea eginez.

Ondorioz, gure basoak hainbat arazo konpontzeaz gain, originaltasun puntu bat emango dio.